



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 28a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Mendekotasun Legearen Nafarroako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzko gomendioen jarraipena”ri buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Mendekotasun Legearen Nafarroako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzko gomendioen jarraipena”ri buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Mendekotasun Legearen Nafarroako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzko gomendioen jarraipena”ri buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-21/CCO-00005).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

“Mendekotasun Legearen Nafarroako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzko gomendioen jarraipena”ri buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Helburuak, norainokoa eta mugak (4. or.).
 - III. Konklusioak (5. or.).
 - III.1. Mendekotasun Legea Nafarroan aplikatzearekin zerikusia duten alderdi orokorren bilakaera (5. or.).
 - III.2. Mendekotasunari buruzko txostenetako gomendioen jarraipena (11. or.).
 - III.3. Amai-konklusioa (14. or.).
 1. eranskina Konklusioak, Mendekotasun Legeko ordainketen kudeaketa eta kontrolari buruz Kontuen Ganberak eginiko txostenekoak (2014ko martxoa) (15. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (18. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (19. or.).

I. SARRERA

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (aurrerantzean Mendekotasun Legea) oinarritzak ezartzen ditu mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretarako eta haien autonomia pertsonalaren sustapenerako.

Arau horrek zenbait babes-maila ezartzen ditu: gutxieneko babes-maila, Estatuak definitua eta finantzarioki bermatua; bigarren maila, Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko elkarlan- eta finantzaketa-araubidekoa, eta hirugarren maila gehigarri bat, autonomia-erkidegoek nahi izanez gero garatzekoa.

Legeak orobat ezartzen du onuradunaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuko dela, hark zerbitzuen kostuan izanen duen partaidetza finkatzeko eta diru-prestazioen zenbatekoa zehazteko.

Aurreko guztiak berekin dakar hiru finantza-eragileren esku-hartzea: Estatuarena¹, kasuko autonomia-erkidegoarena eta prestazio eta/edo zerbitzuen onuradunena.

Nafarroan, PAGNA-Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia da Mendekotasun Legearen aplikazioaz arduratzen den erakunde autonomoa, Eskubide Sozialetako Departamentukoa.

PAGNAk kudeaturiko PZSSI-Prestazio eta Zerbitzu Sozialen Sistema Integratuan jasotzen dira Mendekotasun Legeak Nafarroan dituen onuradunen eta prestazioen oinarritzko zertzelada guztiak. Sistema horretatik, aipatu datuak helarazi egiten zaizkio AMASIS-Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistemari, zeina IMSERSOK kudeatua baita.

Kontuen Ganberak Mendekotasun Legearekin zerikusia zuten bi txosten jaulki zituen 2013ko maiatzean eta ekainean. Zehazki, arau horren pean zeuden egoitza-arretaren eta eguneko arretaren zerbitzuak eta lege horren 2008-2012 aldiko aplikazioa aztertu zituen. Gero, 2014ko martxoan, Mendekotasun Legearen Nafarroako ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzko txosten bat egin zuen Kontuen Ganberak.

Bestalde, Kontuen Auzitegiak (aurrerantzean, KoA) txosten bat jaulki zuen 2014ko maiatzean, Mendekotasun Legearen kudeatze eta kontrolarekin zerikusia zeukaten zenbait alderdiri buruzkoa². KoAren eta kanpo-kontrolako erakunde ezberdinen arteko koordinazio-batzordeak deliberratu zuen aipatu txostenean jasotako gomendioen jarraipen bat egitea, erakunde horien artean lan koordinatua eginez, eta hura 2019ko fiskalizazio-programan jasoz.

Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeari, abenduaren 20koari, jarraikiz, erakunde honek erabaki zuen, bere ekimenez, 2019rako fiskalizazio-programan sartzea 2014ko martxoan eginiko lanean adierazitako gomendioen jarraipena egiteko txosten bat prestatzea, halaber barne hartuko zuena KoAk eginiko gomendioen egiaztapena.

Txostenak hiru atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak jasotzen dira, eta hirugarrenean bilduta daude eginiko lanaren konklusioak. Eranskin bat ere jasotzen da, gai honi buruz Kontuen Ganberak 2014ko martxoan egindako txostenaren konklusioak biltzen dituena, Mendekotasun Legeko ordainketen kudeaketari eta kontrolari dagokienez.

Lana 2020ko azarotik 2021eko otsaila bitartean egin zuen auditoretzako bi teknikarik, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboen laguntzarekin.

¹Estatuaren finantzaketa kalkulatzeko da urtero onuradun bakoitzarentzat haren mendetasun-graduaren eta -mailaren arabera arauturiko gutxieneko mailarekin, kontuan harturik Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistemari autonomia-erkidego bakoitzak helarazitako informazioa.

²Hemen kontsultatu daiteke: <https://www.TCuu.es/repositorio/ec5afa2e-d9e6-411c-8251-175636a40726/I1035.pdf>

Eskerrak eman nahi dizkiegu Eskubide Sozialetako Departamentuko eta PAGNAko langileei, eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zerbitzuari, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan xedatuari jarraikiz, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Eskubide Sozialetako kontseilaria.
- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea.

Alegazioak aurkeztu ditu, Kontuen Ganberak ezarritako epean, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileak. Alegazio horiek argipenak dira, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Hona hemen lan honek izan dituen helburuak:

- Mendekotasun Legea Nafarroan aplikatzearekin zerikusia duten alderdi nagusien bilakaera aztertzea.

• Jarraipen bat egitea, ikuste aldera zein heinetan bete diren Kontuen Ganberak 2014ko martxoan jaulkitako txosteneko gomendioak, Mendekotasun Legeko ordainketen kudeaketari eta kontrolari dagokienez, bai eta KoAk 2014ko maiatzeko bere txostenean eman zituenak ere, erakunde horren eta kanpo-kontrolerako erakundeen artean abian den lan koordinatuaren ondorioz.

Gure lanaren norainokoa hauxe izan da:

- Mendekotasun Legearen aplikazioari buruzko alderdi orokorrak, batik bat honakoei buruzkoak: onuradun-kopurua, gastuak eta diru-sarrerak, PAGNAko langileak, kudeatze-epeak, prestazio aitortzeko batez besteko denbora eta prestazio aitortua izanik ordainketa berandutua daukaten espedienteak. Alderdi horiek aztertzea xede, sarbidea izan dugu bai SAPGE21 sisteman, bai PZSSI sisteman ere, zeinak barne hartzen baitu Mendekotasun Legearen Nafarroako kudeaketari buruzko oinarrizko informazioa.

- Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokiak mendekotasunaz eginiko txostenak.
- Kontuen Ganberaren txostenean eta KoArenean eginiko gomendioak.

Gure lanak honako mugapen hauek izan ditu:

PAGNAk ez dauka ezarrita kontabilitate analitikoko sistemarik, modua emanen duenik mendekotasunarekin zerikusia duen gastua identifikatzeko, eta, bestetik, mendekotasunarentzako arretarako besterik ez diren aurrekontu-partida edo programa berariazkorik ere ez dago. Mendekotasunerako aurrekontu-partidarik ez egote horrek eragina du, halaber, Mendekotasun Legearen onuradunengandik heltzen diren diru-sarreraren zenbatespenean.

Horrek esan nahi du ezin ditugula zehatz-mehatz mendekotasunarekin zerikusia duten gastuak eta diru-sarrerak zenbatetsi; betiere, PAGNAk urteko ziurtagiri bat bidali behar dio Estatuari, zeinean azalduko baititu mendekotasunaren arretaren zereginei erantzuteko egin dituen gastuak. Horretarako PAGNAk analisi-prozesu korapilatsu bat egiten du gastu horiek kalkulatzeko, eta datu horiek dira gure txostenean jasotzen direnak.

Diru-sarreraren kasuan, gure txostenak zehazten ditu prestazioen onuradunengandik jasotako kopuruak barne hartzen dituzten aurrekontu-partidak, berdin delarik onuradun horiek mendekoak izan ala ez; diru-sarrerak helarazten dituzten pertsonen guztizkoaren gainean mendekoek egiten duten ehunekoaren ondorioz, pentsatzekoa da partida horietako diru-sarrerarik gehienak mendekoengandikoak direla, baina ezinezkoa zaigu zenbateko hori zehazki kalkulatzeko.

III. KONKLUSIOAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna

Mendekotasun Legearen aplikazioaren gaineko kudeaketaren erantzukizuna PAGNArena da, zeina Eskubide Sozialetako Departamentuaren erakunde autonomo bat baita.

Eskubide Sozialetako Departamentuak ezarri behar ditu barne-kontrolako sistemak, beharrezko iruditzen zaizkionak bermatzeko ezen Mendekotasun Legearen aplikazioa lege-urratetarik eta iruzur nahiz errakuntzaren ondoriozko oker materialik gabekoa dela.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarrituriko konklusio bat adieraztea Mendekotasun Legea aplikatzearen zertzelada jakin batzuek izandako bilakaerari eta Kontuen Ganberak nahiz, kasua bada, KoAk eginiko gomendioen betetze-mailari buruz

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen oinarritzko fiskalizazio-printzipioei heldurik. Printzipio horiek behartzen gaituzte etika-eskakizunak betetzera eta auditoretza halako moduz planifikatu eta egitera non ezagutza egokia lortuko baitugu gomendioak betetze aldera erabilitako prozedurez, kasua bada, bai eta taxuzko ziurtasun bat ere, informazioa oker materialik gabekoa eta alderdi adierazgarri guztietan araudi indardunaren arabekoa izateari buruz.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria eskaintzen du ateratako konklusioetarako, salbu eta mendekotasunarekin zerikusia duten gastu eta diru-sarreraren zenbatespenari dagokionez, txosten honen II. epigrafean azaldu dugun bezala.

III.1. MENDEKOTASUN LEGEA NAFARROAN APLIKATZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDERDI OROKORREN BILAKAERA

Jarraian, Mendekotasun Legea Nafarroan aplikatzearekin zerikusia duten oinarritzko alderdi batzuen bilakaera azaltzen dugu.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioen onuradunen kopurua.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroak arlo ezberdinetan taldekaturiko prestazioen multzo bat barne hartzen du: oinarritzko laguntza, mendekotasunaren arreta, zaharren arreta, desgaituen arreta, gaixotasun mental larria duten pertsonen arreta, gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta, adingabeen arreta eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren pertsonen arreta.

Hurrengo koadroak azaltzen du zer bilakaera izan duen Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioen onuradunen kopuruak, kopuru hori urte bakoitzeko abenduaren 31koa izanik:

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Mendeko gisa baloratuak	10.174	10.346	11.439	10.322	12.888	13.764	13.888
Ez-mendeko gisa baloratuak	2.283	534	503	524	565	551	533
Pertsonak, guztira	12.457	10.880	11.942	10.846	13.453	14.315	14.421

2019ko abenduaren 31n, 14.421 pertsona ziren Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioen onuradun, eta horien ehuneko 96 mendeko gisa baloratuak izan ziren.

Mendekotasuna duten pertsonen onuradun izandako pertsonen guztizko kopuruaren gainean egiten duten portzentaje horrek ehuneko 95-96ri eusten dio 2014-2019 epean, 2013. urtearekiko igota, hartan ehuneko 82koa izan baitzen.

Mendeko gisa baloraturiko onuradunen guztizkoa, abenduaren 31koa, ez dator bat mendeko gisa baloratuak izanik urtean zehar prestazioen bat jaso duten pertsonen guztizkoarekin, jarraian erakusten den bezala:

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Onuradunak abenduaren 31n	10.174	10.346	11.439	10.322	12.888	13.764	13.888
Urtean zeharreko onuradunak	11.478	11.489	14.019	15.378	16.100	16.924	17.258

Ikus daitekeenez, urtean zehar onuradun izandakoen kopurua nabarmenki handiagoa da sistemaren onuradunek abenduaren 31n egiten zuten kopurua baino.

Mendekotasun Legearen kudeaketarekin zerikusia duten gastu eta diru-sarrerak

Ondoko taulan agertzen dira, 2013-2019 epeari buruz, PAGNA-Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren gastuak, Nafarroak mendekotasun-finantzaketarako eginitako ekarpena frogatzearren Estatuari igorritako ziurtagirian jasotako gastuak (bereizita agertzen dira Estatuak finantzaturiko gutxieneko maila xede duena eta Nafarroak erabakitako gehigarria zuzendutakoa), eta Mendekotasun Legearengatik Estatuarengandik nahiz Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioren baten onuradunengandik jasotako diru-sarrerak.

	(milioitan)						
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
PAGNaren gastuak	132.81	132.71	136.98	165.30	165.02	182.92	200.01
Mendekotasunaren gastuak:			100.23	105.35	110.91	119.59	128.97
Estatuaren gutxieneko maila	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri	11.31	11.63	13.44	14.78	14.66
Nafarroaren maila gehigarria			88.92	93.72	97.47	104.81	114.31
Mendekotasun-gastuak / PAGNaren gastuak, portzentajea	-	-	73	64	67	65	64
Diru-sarrerak:							
Estatuaren ekarpena Mendekotasun Legerako	45.61	45.50	49.07	49.42	51.20	55.11	57.18
Onuradunen parte-hartzea	11.55	12.22	11.31	11.63	13.44	14.78	14.66
	34.06	33.28	37.76	37.79	37.76	40.33	42.28

Aurreko datuen analitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:


- PAGNaren 2019ko gastuek 200,01 milioi egin zuten. Horrek esan nahi du ehuneko 51ko eta 9ko gehikuntza izan zutela 2013koekin eta 2018koekin alderatuta.

Gastu horietatik, 129 milioi Mendekotasun Legea bideratu ziren 2019an, eta kopuru horrek ehuneko 28ko eta 7ko gehikuntza izan zuen 2015ekoarekin eta 2018koarekin alderatuta. Ez da ageri 2013 eta 2014. urteetan mendekotasunera bideraturiko gastua zehazten duen ziurtagiria; horrenbestez, gastu hori zenbatetsi ezinean gaude.

- 2019an, mendekotasunera bideraturiko gastuek PAGNaren guztizkoaren ehuneko 64 egin zuten. Portzentaje hori ehuneko 12 jaitsi zen 2015ekoaren aldean, eta 2018koaren berdintsua da.

- Estatuak 2019an finantzaturiko mendekotasun-gastuak 14,66 milioi egin zituen; hots, 2015ean baino ehuneko 30 gehiago eta 2018an baino ehuneko 0,8 gutxiago. Nafarroak finantzatu zuenak 114,31 milioi egin zituen.

Hurrengo grafikoan agertzen da Estatuak finantzaturiko gastuak eta Nafarroak finantzaturikoak zer portzentaje egiten duten guztizkoaren gainean, aztergai den eperako:



Ikusten denez, maila gehigarriari dagokion gastuak guztizkoaren ehuneko 89 inguru egiten du, eta gutxieneko mailarenak, gainerako ehuneko 11.


- Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioen onuradunengandik 2019an heldutako diru-sarrerak 42,28 milioioak dira. Horrek esan nahi du ehuneko 4ko eta ehuneko 27ko gehikuntza izan dutela 2018koen eta 2013koen aldean.

Jada lehenago ere adierazi dugun bezala, ezinezkoa zaigu identifikatzea zer kopuru den mendeko pertsonen dagokiena; dena den, pentsatzekoa da kopuru muntaduna izanen dela, mendeko pertsonen guztizko kopuruaren gain egiten duten portzentajea kontuan harturik.

- Estatuarengandiko finantzaketa, zeina 2019an 14,55 milioioa izatera iritsi baitzen, osaturik dago parte finko batekin, onuradun-kopuruaren eta mendekotasun-mailaren arabera kalkulatua, eta aldakorra den beste parte batekin, autonomia erkidegoen arteko banatze-koefiziente baten bidez zehaztua. Koefiziente horrek aintzat hartzen ditu autonomia erkidegoen eskaintako prestazioen kopurua eta mota, eta gaur den egunean nagusi dira ez diru-prestazioak, baizik eta zerbitzuak.

Estatuaren irizpide hori PAGNAk gaur egun aukeratu duen ereduaren alderantzizkoa da, eredu horrek aldarrikatzen duelako kasuko pertsona ahal den denbora luzeenaz egon dadila bere familiarekin; ondorioz, Estatuarengandiko finantzaketa Nafarroan ez da beste erkidego batzuetako neurri berean igo.

- Aztertutako aldirian, prestazioen onuradunengandiko diru-sarrerak ehuneko 75 ingurukoak dira (guztizkoa aintzat hartuz), eta Estatuarengandikoak, ehuneko 25ekoak, honako grafiko honek erakusten duen bezala:



Mendekotasunaren balorazioan diharduen PAGNAko langileria

2019an 60 profesionalak ziharduten PAGNAn mendekotasunaren-balorazioan, eta horietatik 52 ziren emakumezkoak, eta zortzi gizonezkoak, jarraian erakusten den bezalaxe:

	2013		2014		2015		2016		2017		2018		2019	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	3	4	3	4	3	4	3	4	1	6	1	6	1	6
Teknikariak (goi-mailakoak eta kudeaketakoak)	5	27	5	27	6	25	3	40	4	35	5	33	4	33
Administrariak	0	15	1	14	0	15	0	15	1	15	4	14	3	13
Guztira	8	46	9	45	9	44	6	59	6	56	10	53	8	52

2013-2019 aldiaren zehar, pertsona-kopuruak ehuneko 11 egin du gora. Langile horiekin zerikusia duen gastua 2,80 eta 2,91 milioikoa izan zen 2018an eta 2019an, hurrenez hurren.

Mendekotasun Legearen kudeaketari buruzko jardun-adierazleak

Eskubide Sozialetako Departamentukoa den Errealitate Sozialaren Behatokiak txosten bat egiten du urtero, mendekotasunak Nafarroan duen egoerari buruzkoa³.

2014-2019 eperako, txosten horretako datu batzuk eta PAGNAk eta Errealitate Sozialaren Behatokiak eskainitako beste batzuk, muntadun iruditu zaizkigunak, aukeratu ditugu, mendekotasunaren kudeaketaren inguruan aurrera eramandako jardunari buruzkoak. Honako hauek dira:

³ 2019. urteari buruzko txostena honako esteka honetan kontsultatu daiteke: <https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ikerketak/iii-informe-sobre-la-dependencia-en-navarra-2019/es-555570/>. 2020. urteari buruzkoa ez dago eskuragarri txosten honen idazte-unean.

- Mendekotasun-laguntzen onuradun jada badiren edo izan daitezkeen pertsonengandik PAGNAk jasotako eskabideen kopurua honako hau da:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 2019/2014	Aldea (%) 2019/2018
Eskabide kopurua	17.104	17.457	18.323	19.891	20.012	20.052	17	0.2

2019an 20.052 eskabide izan ziren, eta haien kopurua 2014koa baino ehuneko 17 handiagoa izan zen, eta 2018ko berbera, ia. Eskabide horiek batez ere dira balizko onuradunen mendekotasun-balorazio berriei buruzkoak, jada onuradun badiren pertsonen balorazioen berrikuspenari buruzkoak, prestazio berriei buruzkoak edo jada badaudenak aldatzeari buruzkoak.

Ondoko taulak erakusten du nolako ratio-bilakaera izan den eskabide-kopuruaren eta PAGNAk mendekotasunaren kudeaketan diharduten langileen kopuruaren artean.

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldaketa, ehunekotan 2019/2014	Aldea (%) 2019/2018
Eskabideak/PAGNAko langileak	316.74	329.38	281.89	320.82	317.65	334.20	6	5

2019an, eskabideen eta PAGNAko langileen arteko ratioa 334,20koa izan da; hots, 2018koa baino ehuneko bost handiagoa den kopurua.

- Azterkizun hartutako epean honako mendekotasun-balorazio hauek egin dira:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Aldea (%) 2019/2014	Aldaketa, ehunekotan 2019/2018
Balorazio berriak	3.573	4.590	5.611	6.381	6.161	5.955	67	-3
Balorazio-berrikuspenak	457	214	436	474	403	474	4	18
Balorazioak guztira	4.030	4.804	6.047	6.855	6.564	6.429	60	-2

2019an 6.429 mendekotasun-eskabide baloratu ziren. Kopuru hori ehuneko 60 handiagoa da 2014koa baino, baina ehuneko bi txikiagoa 2018koa baino. Aldian eginiko balorazioen ehuneko 93 onuradun berriei dagozkie, eta gainerako ehuneko 7, jada eginiko balorazioen berrikuspenei.

- Araudiak sei hilabeteko gehieneko epea ezartzen du eskabide-sarreraren egunaren eta mendekotasun-prestazioa kasua bada aitortzeko ebazpenaren artean.

Hurrengo taulak erakusten du epe horrek Nafarroan izan duen bilakaera, Kontuen Ganberak aurreko txostena egin zuenetik 2019ko abenduaren 31ra arte.

	(hilabetetan)			
	2012ko maiatzaren 1etik 2013ko apirilaren 30era	2018eko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra	2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra	
Iragandako epea	4.18	3.59	4.58	

Araudiak ezarritako epea bete egiten da azterturiko epe osoan, eta batez beste 4,58 hilabete egiten du 2019an, nahiz eta ehuneko 28ko igoera izan duen 2018arekin alderatuta.

- Aipatu epean sartuta dago mendekotasunaren balorazioa egiten denetik prestazioaren aitortpena egiten den arte batez beste igarotako denbora. Denbora horretarako epeak, aurreko taulan ezarriak, honako hauek dira:

(hilabetetan)

	2012ko maiatzaren 1etik 2013ko apirilaren 30era	2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra	2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra
Iragandako epea	0.49	1.86	2.13

Mendekotasun-balorazioa egiten denetik prestazioa aitortzen den arte batez beste igarotako denbora 2,13 hilabetera igo zen 2019an. Adierazle horrek 2018koaren aldean ehuneko 15eko gehikuntza izan du.

- Aurreko datuak batez besteko denborak dira. Horrenbestez, jarraian azalduko ditugu prestazio bat noiz jasoko zain dauden espedienteen kopuruak, mendekotasun-aitortpena jada emana izanik sei hilabete igarota dituztenak eskabidea egiten denetik:

	2012ko maiatzaren 1etik 2013ko apirilaren 30era	2018eko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra	2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra
Espediente kopurua	838	204	525

Araudiak ezarritako epeaz kanpo dauden espedienteak 525 izan ziren 2019an, eta 2018koak baino ehuneko 155 gehiago izan ziren, nahiz eta ehuneko 37 behera egin zuten 2012ko maiatzetik 2013ko apirilera bitarteko epearekin alderatuta. Espediente horietatik, 505 espediente 2019an, 198 espediente 2018an, eta 242 espediente 2012ko maiatzetik 2013ko apirilera bitarteko epean, larrialdietako telefono-zerbitzuaren prestazioaren onuradun ziren, baina beste prestazio bat jasotzeko zain zeuden. Gainerakoek ez daukate ezta aipaturiko telefono-zerbitzua ere esleituta.

- Honako hau da eskabidea jasotzen denetik IMSERSOren AMASIS-Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistemari sartzen den arte batez beste igarotako denbora:

(hilabetetan)

	2012ko maiatzaren 1etik 2013ko apirilaren 30era	2018eko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra	2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra
Iragandako epea	4.67	4.80	5.07

2019an, denbora hori 5,07 hilabetekoa izan zen. Horrenbestez, epe hori ehuneko sei eta ehuneko bederatzia igo zen 2018. urtearen eta 2013ko apirilaren aldean.

- Batzuetan, Mendekotasun Legeko prestazioen onuradunak arrazoi ezberdinengatik aurkitzen dira behar ez bezala jasotako kopuruak PAGNari itzuli beharrean. 2018an eta 2019an kopuruak itzuli dituzten onuradunen xehetasunak jarraian agertzen dira:

	2018	Gutzizkoaren gaineko portzentajea	2019	Gutzizkoaren gaineko portzentajea
Heriotzagatiko azkentzea	15	10	14	1.6
Egoitzara eramanak	87	59	108	13
Eguneko zentroetara eramanak	44	30	59	7
Prestazioen bateraezintasuna	0	-	671	78
Beste autonomia erkidego batera joanak	2	1	3	0.4
Guztira	148	100	855	100

2018an, itzulketen arrazoi nagusia prestazio-aldaketa izan zen, egoitza batera edo eguneko zentro batera eramanak izateagatik (ehuneko 59 eta ehuneko 30, hurrenez hurren). 2019an, na-

hiz eta arrazoi horiek kopuruz igo egin ziren, horien pisu erlatiboa nabarmen murriztu zen, beste arrazoi bat agertu baitzen, prestazioen bateraezin tasunarekin zerikusia zeukana eta guztizkoaren ehuneko 79 egiten zuena, zorroan prestazio berri bat gehitu zelako, beste batzuekin bateraezina zena.

Itzulketa-espeditente horiek guztira 75.858 euro egin zituzten 2018an, eta 476.634 euro, 2019an.

Horri buruz adierazi behar dugu itzulketa horiek egoteak ez zuela kasu guztietan esan nahi izan onuradunak kasuko kopurua ordainketa-gutun bidez pagatu behar izatea, baizik eta, beste prestazio baterako eskubidea izateagatik, PAGNAk konpentsazioaren bidea erabili izan duela administrazio-izapideak azkartzeko.

III.2. MENDEKOTASUNARI BURUZKO TXOSTENETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Gomendio baten betetzearen maila honako irizpide hauen arabera kalifikatu dugu:

Kategoria	Deskribapena
Osoan edo funtsean aplikatua	Baldin eta zuzentze-neurriak, zentzuzkoak eta proportzionalak, hartu badira, horri buruzko behar adinako ebidentzia egonik, modua ematen dutenak irizteko ezen gomendioa eraginkorra izan dela eta ez dela ebazkizun geratu munta nabarmeneko inolako gairik.
Partzialki aplikatua	Baldin gomendioa aintzat hartu bada, baldin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko urratsak egin badira, baina hasierako fasean baino ez, haien parte batean bakarrik edo alderdiren batean baino ez, eta, ondorioz, gomendioa moduz bete izandakotzat jo ezin izanik.
Aplikatu gabea	Ez bada egin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko jarduketarik, edo eginiko jarduketak ez badira aski edo ez badira egokiro egin, halako moldez non gomendioak aplikatu gabe jarraitzen duen.
Baliogabea egungo egoeran	Txostena jaulki zenean balioduna eta pertinentea izan arren, egungo testuinguruan ezin aplikatuzkoa den gomendioa, horretarako moduko zirkunstantziarik ez dagoenez edo txostenaren jaulkipenaren uneko egokiera bera gertatzen ez denez.
Egiaztatugabea	Gomendio bat, zeinak froga gehigarriak beharko bailituzke azaldutakoa ziurtatzeko, are enteak aplikatu egin badu ere.

Jarraian, lorturiko emaitzen berri emanen dugu, bai Kontuen Ganberaren txostenean jasotako gomendioetarakoak bai Kontuen Auzitegiaren txostenean jasotako gomendioetarakoak.

III.2.1. Kontuen Ganberaren txostena, Mendekotasun Legeko ordainketak direla-eta Nafarroan eginiko kudeaketaren eta kontrolaren gainekoa

Txosten honekin batera doan 1. eranskinean daude bilduta Kontuen Ganberak 2014ko martxo txostenean iritsi zituen konklusioak. Martxo txosten horretan gomendioak ere egin ziren, eta horietatik dira jarraian zehaztuko ditugunak, haien ezarpen-maila aztertutik:

- *Ahal den bezain azkar prozedura bat ezartzea, zeinak aukera emanen baitu aztertze eta depuratzeko Nafarroak jaso behar zuen finantzaketaren eta egiazki jaso zuen finantzaketaren arteko alderaketatik heldu diren aldeak, Estatuarekin behar den kopurua erregularizatzeari begira, kontuan izanda, gainera, jada hauteman diren baina konponbidean dauden gorabeherak.*

Gomendio hori osoki baliogabea da egungo egoeran; izan ere, nahiz eta PAGNAk ez duen prozedura jakin bat ezarri Estatuarengandik jasotako finantzaketa ea egokia ote den aztertze, ez dago modurik egiaztaketa hori egiteko, Nafarroak ez baitaki finantzaketaren parte aldakorra autonomia erkidegoen artean banatzeko erabilitako koefizientea zein den. Horrek esan nahi du ezin dela egiaztatu ea jasotako kopurua egokia den.

- *Estatuko Administrazio Orokorrari itzultzea bidegabeki jasotako kopurua, Estatutik ekonomia eta enplegua dinamizatzeko jasotako funtsetatik heldu dena, saiheste aldera kopuru hori handiagoa izan dadila berandutza-interesen eraginez.*

Gomendio hori guztiz aplikatuta dago, 2014ko irailean egin baitzion kasuko itzulketa PAGNAK Estatuari.

- *Ahal den bezain laster jarraipen egokia egitea gauzatzeko dauden ordainketa-gutunen gainean, eta beharrezkoa bada bere garaian egindako kobrantzaren kudeaketa-prozedura hobetzea, haiek iraungi daitezzen saihesteko.*

Gomendio hori bere osotasunean aplikatu zen, gauzakizun zeuden ordainketa-gutunen jarraipena egin baitzen; gainera, kobrantza-kudeaketako prozedura nabarmenki hobetu zen, heriotzen berri ematen duten datu-baseekin egunero gurutzaketa automatizatuak egin baitziren.

- *Berriki hasitako konpentsazio metodoarekin jarraitzea, prestazioak aldi berean gertatzen diren kasuetan, bidegabeko ordainketak itzultzeko espedienteek sortzen dituzten izapide administratiboak saihesteko.*

Gomendio hori ere bere osotasunean aplikatu da, zeren eta, jada adierazi bezala, kobrantza-kudeaketako prozedura hobetu egin baita, eta aipatu konpentsazio-metodoa gaur egun ohikotasunez egiten da.

- *Behar den informazio guztia jasotzea PZSSI datu basean, Mendekotasun Legeko onuradunen egoera erreal eta gaurkotua erakuts dezan.*

Gomendio hori osoki ezarria izan da, nabarmenki hobetu baita PZSSIn informazio-eransketa eta -eguneraketa Ganbera honek bere txostena egin zuenetik, halako moldez non murriztu egin baitira informazio-agregazioaren epeak, bai eta aurkituriko okerrak zuzendu ere.

Azaldu diguten prozesuan izandako hobekuntza hori egiaztatzearen, 80 espedienteko lagin bat berrikusi dugu, eta haietan erkatu dugu ea NANA eta balizko onuradunaren eskabidearen data zuzen sartuak izan ote diren PZSSIn. Oro har, asegarria izan da emaitza, eta datuak bat etortzen dira.

III.2.2. Kontuen Auzitegiaren txostena, Mendekotasun Legearen kudeaketari buruzkoa

Kontuen Auzitegiak 2014ko maiatzeko bere txostenean eman zituen gomendioetatik Nafarroari aplikatzeko modukoak hauexek izan ziren:

- *Autonomia erkidegoetako organo eskudunek beharrezko neurriak hartu beharko lituzkete, bai kudeaketakoak bai aurrekontu alorrekoak, betetze aldera sei hilabeteko gehieneko epea, interesdunaren eskabidetik kontatzen hasitakoa, mendekotasun-egoeraren ondoriozko prestazioak aitortzeko ebazpena ematekoa, 39/2006 Legeko azken xedapenetan lehenak ezartzen duen bezala, bai eta aitorten hori eraginkorra berehala izate aldera.*

Gomendio hori osoki ezarrita dago, zeren eta, batez beste, sei hilabeteko epea ez baita Nafarroaren kasuan gainditzen. Halaber egiaztatu dugu ezen, oro har, prestazio-aitorpena berehala izaten dela eraginkorra.

- *Autonomia erkidegoetako organo eskudunek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko lituzkete, AMASIS-Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistema etengabe eta puntualki eguneratuta egoteko; batez ere, gutxieneko mailaren likidaziorako beharrezkoak diren datuei dagokienez, abenduaren 17ko Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren 2371/2013 Aginduak zehazturiko moduan. Hain zuzen, agindu horrek arautzen du Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistema. Saihestekoak dira gehiegizko erregistratze-berandutzak, halakoak antzeman baitira eskabideen altak eta bajak izapidetzean, mendekotasun-egoerak, prestazioak eta eskubidearen eraginkortasuna aitortzeko ebazpenetan, gradua edo prestazioa berrikusteagatik aldatze edo bajetan, lekualdatze, uko egite, heriotza edo beste edozein inguruabarren ondoriozkoetan, eta bermatu behar da une oro bat datorrela AMASISen gordetako informazioa mendeko pertsonen egoera errealarekin eta autonomia erkidegoek erabilitako informazio-sistemetan dagoen informazioarekin.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da, honako arrazoi hauengatik: informazioa PZSSIn eguneratuta eta AMASISi puntualki jakinarazita dago, salbu eta heriotzen kasuan, horietan prozedura hobetu beharra baitago, sumatu dugunez. Zehazki, egiaztatu dugu 2020an 3.750 pertsona hil zirela, eta horietako 1.921en berri eman zitzaion AMASISi hilabete baino gehiagoko epean (ehuneko 51), 471ren berri hilabete baino gutxiagoan (ehuneko 13), eta 1.358 ez ziren jakinarazi (ehuneko 36).

Jakinarazi gabeko heriotza izan zuten 1.358 pertsonetatik, 238 ez-mendekotzat jotzen ziren, baina gainerako 1.120 pertsonak (ehuneko 82) baziren izan, halako moduz non Nafarroak haiengatik finantzaketa jaso baitzezakeen. Nahiz eta IMSERSOk egiaztapen gehigarriak egiten dituen horretaz, eta Nafarroari pertsona horiengatik finantzaketa murrizten dion, txosten hau idazteko unean PAGNA ez da heriotzak axola egokiaz jakinarazten ari.

- *Autonomia erkidegoek beharrezkoak suertatzen diren arauak sustatu beharko dituzte Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Lurralde Kontseiluaren 2012ko uztailaren 10eko Erabakian ezartzen dena betetzeko; zeinean, Mendekotasun Legeko 33. artikulua ezartzen duenari jarraikiz, gutxieneko irizpide amankomunak ezarri baitziren Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren onuradunen ahalmen ekonomiko pertsonala zehazteko, bai eta haiek sistemako prestazioetan ekonomikoki parte hartzeko irizpideak ere. Egiten diren arau-aldaketak Estatuko Administrazio Orokorrari jakinarazi beharko zaizkio, aipatu Erabakiak ezartzen duen bezala.*

Gomendio hori partzialki dago aplikatuta; izan ere, PAGNAk Mendekotasun Legearen onuradunen ahalmen ekonomiko pertsonala zehazteko irizpideak jasotzen ditu, bai eta arau horretako prestazioetan izanen duten parte-hartze ekonomikoa zehazteko ere. Baina eginiko arau-aldaketak ez zaizkio jakinarazten Estatuko Administrazio Orokorrari.

- *Autonomia erkidegoak beharrezkoak diren kontabilitate-prozedurak ezarri beharko lituzkete, ziurtatzearen mendekotasunaren arretara bideraturiko gastu ororen kontabilitate-kontrola, finantzaketa atxikidun gastu diren aldetik, halako moldez non mendekotasunaren arretara bideraturiko gastu oro behar bezala identifikatuta egonen baita bere bizialdian zehar kode bakar eta aldaezin baten bitartez, zeinak indibidualizatu egiten baitu kontabilitate-informazioko sisteman, eta ahalbidetuko baitu urteko kontuetako oroitidazkiak kasuko informazioa eskaini dezan. Hala ere, finantzaketa atxikidun beste gastu batzuetara bideraturiko kredituak sartuta egon beharko lirake berriazko programa edo aplikazioetan, gainerako gastuetatik bereizirik. Autonomia erkidegoek ezarritako kontabilitate- eta kontrol-mekanismoek ahalbidetu beharko dute behar bezala betetzea sisteman sarturiko kudeaketaren eta informazio horren egiazkotasunaren hileroko ziurtapena egiteko betebeharra, bai eta ekitaldi bakoitzean Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren finantzaketarako helarazi dituzten kopuruen urtean behingo ziurtapena egiteko ere. Ziurtapen horrek modua eman beharko luke bai gutxieneko babes-maila bai zerbitzu- eta prestazio-mota bakoitzaren kostua eta onuradunen ekarpen edo koordainketa zenbatesteko, horretarako jarraiturik abenduaren 27ko 1050/2013 Errege Dekretuan eta abenduaren 17ko Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren 2371/2013 Aginduan ezarritakoari. Harik eta kontabilitate analitikoko metodori edo finantzaketa atxikiko gastuen jarraipenerako metodori, zerbitzuen kostuaren zenbatespen zehatza ahalbidetzen duenik, ezartzen ez den bitartean, kalkulua egin beharko da Lurralde Kontseiluak ezarritako erreferentzia-kostuak aplikatuz edo, kasua bada, autonomia erkidegoek zeinek bere esparruan eta berdintasun-printzipioa neurririk handienez babestuz ezartzen dituztenak aplikatuz.*

Gomendio hori ez dago gauzaturik txosten honen idazte-aldian, egiaztatu baitugu ez dagoela berriazko aurrekontu-partidarik mendekotasunerakoak diren gastuetarako ez eta diru-sarrereterako ere. Horrekin batera, ez dago emandako zerbitzuen kontabilitate analitikorik; ondorioz, PAGNAk Estatuari ziurtaturiko gastua zenbatespen bat da, neketsuegia eta garestiegia den prozedura baten bitartez egina.

- *Autonomia-erkidegoek, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen aplikazioz eta IMSERSOrekin aurretiaz akordio batera iritsita, mendekotasunaren kudeaketari buruzko espediente elektronikoak egiteko sistema bat ezarri beharko lukete. Espediente horiek baldintzatuta leudeke, beren egiturari, formatuari eta igortze- nahiz eskuratze-zerbitzuen nolokotasunetan, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala eta Segurtasun Eskema Nazionala betebeharretara.*

Gomendio hori guztiz aplikatuta dago, 2014ko azarotik aurrera bete egin baitira aipatu eske-
metako eskakizunak, espedientei buruzko informazioez PZSSI eta AMASISen artean izandako
komunikazioetan.

• *Autonomia erkidegoek hobetu egin behar dute mendekotasun-prestazioak jasotzeko esku-
bidea bukatzearen kasuen kontrola, eta bereziki onuradunak bizirik egotearen kontrola, kontrol
propioak ezarriz, IMSERSOk eginikoei aurrea hartu ahal dietenak. Betiere, axola areagotu be-
harko dute jada detektatu diren edo etorkizunean detekta litezkeen okerreko ordainketen kasue-
tan itzulketa-espedientei ekitean.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da, PAGNAk ez dituelako axola egokiaz komunikatzen herio-
tzak, nahiz eta axola hobetu duen itzulketa-espedientei ekiteari dagokionez, konpentsazioa ge-
hiturik administrazio-prozedurak azkartzeko metodo gisa.

• *Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiarako eta Mendekotasun-arretarako Sistemaren Lurralde
Kontseiluak eta autonomia erkidegoek indartu egin beharko lituzkete Mendekotasun Legearen
18.4 eta 36. artikuluetan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak eta -programak, zaintzaile ez-
profesionalei zuzenduak, eraginkorki lagungarriak badira, haiei trebakuntza profesional egokia
emanez, mendekotasunaren arretarako zerbitzuetan enplegua sustatzeko.*

Gomendio hori ez da aplikatu, ez baitira indartu mendekotasunaren arretarako zerbitzuetan
zaintzaile ez-profesionalei zuzendutako prestakuntza-jarduerak eta -programak.

III.3 AMAI-KONKLUSIOA

Mendekotasun Legeak pertsonen eskubide subjektibo bat taxutzen du, unibertsaltasun, ekitate
eta irisgarritasun printzipioetan oinarritua, non hiru finantza-agentek parte hartzen baitute: auto-
nomia erkidegoak, Estatuak eta aurreikusten dituen prestazioen onuradunek.

2019an zehar, lege horren aplikazioak 17.258 pertsonari ekarri zien onura, eta horietatik
13.888 zeuden aktibo sisteman abenduaren 31n. PAGNAk Estatuari igorritako ziurtagiriaren ara-
bera, mendekotasun-gastuak urte horretan 128,97 milioi egin zituen, eta Estatuarengandik guz-
tira 14,66 milioi jaso ziren.

Kontuen Ganberak txosten bat argitaratu zuen 2014ko martxoan, Mendekotasun Legearekin
zerikusia zuten ordainketen kudeaketari eta kontrolari buruzkoa, eta Kontuen Auzitegiak gai horri
buruzko beste bat 2014ko maiatzean, autonomia erkidegoekin elkarlanean.

Egiatzatu ahal izan dugu bi txosten horietako zenbait gomendio aplikatu direla, eta halatan
hobetu egin dela Mendekotasun Legearen aplikazioaren kudeaketa. Gomendio horiek honakoei
buruzkoak ziren nagusiki: kobrantzen eta ordaindegabeen kudeaketarako prozedura hobetzea;
PZSSIn jasotako informazioaren etengabeko eguneraketa nabarmenki hobetzea, zendutako per-
sonen gaineko kontrola barne; mendekotasunaren balioespena ebatzteaz araudiak ezarritako
epea betetzea eta prestazioaren berehalako aitorten gauzatua; eta Elkarreragingarritasun Es-
kema Nazionala ezartzea, IMSERSOK PAGNAren eta Estatuaren arteko komunikaziorako ipini-
tako elkarreragingarritasun-puntuaren erabilerari dagokionez. Hobekuntza horiek guztiak posible
izan dira, hein batean, Eskubide Sozialetako Departamentuari informatika-alorreko langileak atxikitzeaga-
tik.

Nolanahi ere, beste gomendio batzuek betekizun diraute; horietatik, lehentasunezkoztat ho-
nako hauei deritzegu: kontabilitate analitikoko sistema bat ezartzea, zeinak modua emanen baitu
zehazteko zenbatekoa den mendekotasun-gastua, eta prezio publikoen ezartzea hobetzeko; be-
rariatzko aurrekontu-partidak sortzea Mendekotasun Legearen aplikazioarekin zerikusia duten
gastu eta diru-sarrerarako; zenduei buruz PZSSItik AMASISi egiten zaion komunikazioa hobe-
tzea.

Auditore Karen Moreno Orduña andrea izan da txosten hau egitearen arduradun, eta berak
proposatuta jaulki da, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA KONKLUSIOAK, MENDEKOTASUN LEGEKO ORDAINKETA KUDEAKETA ETA KONTROLARI BURUZ KONTUEN GANBERAK EGINIKO TXOSTENAKOAK (2014KO MARTXOA)

1. Mendekotasunari buruzko Legeko onuradunei egindako ordainketak kudeatu eta kontrolatzeko prozedura

PANA-Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak badauzka hiru atal, ardura dutenak Mendekotasunari buruzko Legearekin zerikusia duten laguntzak kudeatzeko. Zenbait egoera gerta daitezke, onuradunek oker kobratzea eragin dezaketenak, hala nola heriotza, prestazio-aldaketa, mendekotasun-gradu edo -mailaren aldaketa, borondatezko baja eta abar.

Onuradunei egindako okerreko ordainketa horiek kontrolatzeko prozedurak akastunak izan ziren, PANAREN atal batean, 2011ko urrira arte; eta beste bietan, 2013ko urtarrilera arte. Data horietatik aurrera, ordea, prozedurak nahiko egokiak izan dira.

2007tik 2013ko apirilaren 30era doan aldian, okerreko kobrantzak direla-eta PZSSI-Prestazio eta Zerbitzu Sozialen Sistema Integratuak guztira 1.155 ordainketa-gutun egin zituen, eta 995.416 euroko zenbatekoa egin zuten (prestazio aktiboen ehuneko 1,33); horietatik ehuneko 44, onuraduna egoitza bateko egoiliar bihurtzeagatiko prestazio-aldaketa bati zegozkion, eta ehuneko 38, onuradunaren heriotzari.

2014ko urtarrilaren 31n, honakoa zen ordainketa-gutun horien egoera:

	Guztira	Kobratuak		Izapidetzen		Beteazte-bidean		Jarraipena egiteko daudenak			
		Datuak	Guztiz-koaren gaineko portzentajea	Datuak	Guztiz-koaren gaineko portzentajea	Datuak	Guztiz-koaren gaineko portzentajea	Preskribatuak*		Preskribatu gabekak	
								Datuak	Guztiz-koaren gaineko portzentajea	Datuak	Guztiz-koaren gaineko portzentajea
Ordainketa-gutun kopurua	1.155	759	66	21	2	45	4	26	2	304	26
Ordainketa-gutun zenbatekoa	995.416	541.161	54	13.681	1	98.211	10	25.691	3	316.672	32

* Diru-laguntzen ordainketaren preskripzio-epela lau urtekoa da, eta kontabilitate-erantzukizunarena, bost urtekoa.

Ikusten den bezala, okerreko kobrantzetatik sortutako zenbatekoaren ehuneko 54 kobratu da; ehuneko 35 jarraipena egiteko dago; ehuneko 10 beteazte-bidean dago, eta gainerako ehuneko bata, izapidetua izaten. Jarraipena egiteko daukaten gutunen zenbatekotik, ehuneko zortzi preskribatuta dago, eta gainerakori dagokionez, PANAK jada hasita dauzka haiek kobratzeko beharrezkoak diren lanak.

2. Mendekotasunagatiko prestazioa eta/edo zerbitzua ebazteko epeak

2013an hobekuntzaren bat izan ondoren aurreko urteen aldean, mendetasunaren prestazioa eta/edo zerbitzua ebazteko batez besteko epea 9,15 hilekoa izan zen.

Balizko onuradunak dokumentazio-akatsak zuzentzen eman dezakeen denbora kenduta, hori ez bailitzateke izanen PANAREN ardurapekoa, 2013ko otsailean eta martxoan batez besteko epea 6,71 hilabetekoa zen. Adierazle hori nahiko hurbil dago araudian ezarritako sei hilabeteko epea.

3. Berdintasunaren printzipioa betetzea onuradunen ahalmen ekonomikoa eta mendekotasunaren kosturako egiten duten ekarpena finkatzean

Gaur egungo foru araudiak, onuradunen ahalmen ekonomikoa eta horiek mendetasunaren kosturako eginiko ekarpena zehazteko, parametro bezala erabiltzen ditu errenta, ondarea (desgaitasuna duten pertsonen kasu batzuetan izan ezik) eta familia unitatea.

Gainera, garrantzia duten beste alderdi batzuk hartuko lirateke kontuan; esate baterako, berme erreal edo pertsonalak jartzea zorraren sorrerari aurre egiteko, baldin eta onuradunak prestazioaren zenbatekoa guztiz ordaintzen ez badu; prestazio bakoitzerako ordaindu beharreko

gutxieneko eta gehieneko kostu batzuk; mendekotasunaren kostuaren finantzaketan ekarpenetik salbuetsita dauden errenta-gutxieneko batzuk, eta mendekotasuna duen pertsonak gutxieneko errenta-eskuragarritasun bat izatea bermatzeko araubidea.

Egindako azterketatik ondoriozta daiteke araudiaren irizpideek bermatzen dutela herritarren arteko berdintasun-printzipioa eta haien ekarpen-ahalmenarena.

4. Nafarroak Estatuarengandik jasotako finantzaketa Mendekotasunari buruzko Legea aplikatzeagatik (2009-2013)

Mendekotasunari buruzko Legea Nafarroan aplikatzeko finantzaketaren egitura, 2011ko eta 2012ko ekitaldietakoa, honako eskemaren arabera da, Ganbera honek lehenago eginiko txostenetan aztertu zen bezala:

	2011		2012	
	Zenbatekoa (eurotan)	Finantzaketa- ren ehuneko eragilearen arabera	Zenbatekoa (eurotan)	Eragile bakoitzaren finan- tzaketa (%)
Nafarroako Gobernuaren gastua	107.699.700	70	95.669.268	69
Prestazioen erabiltzaileen kuotak	32.226.048	21	30.503.209	22
Estatuaren ekarpena	13.081.123	9	12.569.028	9
Guztira	153.006.871	100	138.501.706	100

Ikusten den bezala, Mendekotasunari buruzko Legea Nafarroan aplikatzeak dakarren gastuaren finantzaketaren ehuneko 9 eta 10 bitarte Estatuak jartzen du. Finantzaketa hori kalkulatu da urtero onuradun bakoitzarentzat haren mendetasun-graduaren eta -mailaren arabera arauturiko gutxieneko mailarekin, kontuan harturik AMASIS-Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistemari autonomia-erkidego bakoitzak helarazitako informazioa.

2009-2013 aldian, Nafarroak 75,88 milioi euro jaso zituen Estatuarengandik. 2013ko finantzaketa 11,59 milioi eurokoa izatera iritsi zen, 2009ko urtearekin alderatuta ehuneko 46ko jaitsiera izan ondoren, gutxieneko maila jaistearen ondorioz, nagusiki.

2013ra arte, Estatuaren likidazioei buruz PANAK jasotzen zuen informazioak ez zion modurik ematen jasotako kopurua behar bezalakoa zen ala ez egiaztatzeko. 2013ko otsailetik aurrera, hileroko fitxategi bat igortzen da, informazio gehiagorekin. Informazio horrek, behin kasuko prozedura ezarri ondoren, aukera emanen du egiaztatzeko ea likidazioa egokia den.

Gizarte Politiketako Departamentuak informazio historikoa eskatu zion IMSERSOri, 2007ko apiriletik gaur arte onuradun bakoitzeko egindako likidazioak egiaztatze aldera. Txosten hau egin den garaian, eskaini zaien informazioa 2013ko azarora bitartekoa da. Egiaztatu da desberdintasun ugari daudela PANAREN eta IMSERSOREN oinarrien artean, eta horiek aztertu eta erregularizatu egin beharko dira.

Azken batez, onuradunei buruzko banakako informazio egokirik ez dagoenez, ezin izan da egiaztatu ea 2009-2013 epean Nafarroak Estatuarengandik jasotako finantzaketa behar bezalakoa izan den, araudian ezarritako irizpideei erreparatuta.

Gutxieneko maila arautzen duen 1050/2013 Errege Dekretuak indarra hartzearekin, dauden onuradunak autonomia erkidegoek justifikatzeko sistema bat ezarri zen, zeinak berarekin baitakar ezin izanen dela alderik egon datu baseen artean, eta, halakorik egonez gero, autonomia erkidegoak ez duela Estatuaren finantzaketarik jasoko harik eta haiek ebatzi arte.

Aurrekoari gehitu behar zaio Nafarroak Estatuarengandik 5,8 milioi euro jaso zituela Estatuak ekonomia eta enplegua dinamizatzeko funts berezitik, zeina 9/2008 Errege Lege-dekretuan araututa baitago. Kopuru hori mendekotasunari arreta ematearekin lotutako jarduketetarako bideratu da, eta hortik, azkenean, 5,7 milioi gastatu ziren.

**5. Nafarroaren eta IMSERSOren arteko lankidetzaren printzipioaren betetzea, AMASISi igo-
rritako informazioaren kontrolean eta etengabeko gaurkotzean**

Kontuen Epaitegiak 2013ko martxoko txostenean zehaztu bezala, Mendekotasunari buruzko Legearen aplikazioaren hasieran Nafarroak IMSERSOri AMASISerako informazioa igortzeak zenbait gorabehera eragin zituen datuetan, eta horrek bere eragina izan zuen finantzaketan.

Hartara, 75,88 milioi euroko guztizko kopuru batetik Nafarroak okerreko 8,06 milioi euro inguru jaso zituen Estatuarengandik. Kopuru hori jadanik erregularizatzen joan da.

Aurrekoa gorabehera, denbora igaro ahala, nabarmen hobetu dira aplikazio informatikoak eta prozedurak. Gaur egun, esan daiteke Nafarroak nahiko ongi betetzen duela AMASISekiko kontrol-lankidetzaren printzipioa eta hari informazio gaurkotua bidaltzearena.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziatik honako alegazio hauek egin nahi dizkiogu Mendekotasun Legeko ordainketak Nafarroan kudeatu eta kontrolatzeari buruz Kontuen Ganberak eginiko behin-behineko txostenari:

Txostenean jasotako informazioari buruz:

- 1) Mendekotasun Legearekin zerikusia duten gastu eta diru-sarreraren taulan eskainitako datuei dagokienez, bertan jasotzen dira PAGNAREN 2013tik aurrerako gastu orokorrak, eta horietan gehikuntza oso nabarmena ikus daiteke 2016ko ekitaldian, 2015ekoarekin alderatuta. Gehikuntza hori ez da proportzionala mendekotasun-alorreko gasturako partidetan. Horren arrazoia da 2015aren amaiera aldera Familiaren eta Adingabeen Zuzendari-ordetza atxiki zitzaiola PAGNARI, horrekin baterako aurrekontu-gehikuntzarekin. Konparaketa egiteak zifrak desitxura ditzake, garai horretan mendekotasun-gastuak beherakada izan zuela ondorioztatzeagatik. Proposatzen dugu azalpen-ohar bat eranstea taulari, horren ulermena erraztuko duena.

PAGNAREN gastuari kendu egiten badiogu Familiaren eta Adingabeen Zuzendaritzara bideratutakoa, mendekotasunari 2019an eskainitako portzentajeak guztizkoaren % 75,8 egiten du. Proposatzen dugu 8. orrialdeko bigarren puntua honela aldatzea: Mendekotasunerako gastuek PAGNAREN 2019ko guztizkoaren % 75,8 egiten dute, baldin eta konparazioa erakunde horrek 2015ean zeukan egitura berarekin egiten badugu".

- 2) Bederatzigarren orrialdeko 4. paragrafoan kontrajarri egien zaio estatu-irizpidea, autonomia-erkidegoen mendekotasun-gastuaren parte bat finantzatzearena, PAGNAK hautatu duen ereduari, zeinak aldeztu baitu dena delako pertsona ahalik eta denbora luzeenez egon dadila familiarekin. Nabarmendu nahi genuke eredu hori bat datorrela Mendekotasun Legean bertan 3. i artikuluan jasotzen diren printzipioekin. "Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak ahal den guztietan egon daitezten beren bizitza egiten duten ingurunean." Ildo horretan, gure sistema Mendekotasun Legearen espiritutik aldentzen duena da diru-prestazioen kopuru handia, pertsonak beren ingurunean mantentzeko beharrezkoak diren zerbitzuen aldean. Zaintzaile profesionalak kontratatzeko diru-prestazioa, 2018an berreskuratua, bideratuta doa egoera hori konpontzera, eta prestazio hori zerbitzu baten kontratazioari lotutakotzat jotzen da.
- 3) 11. orrialdeko bigarren puntuari buruz, argitu behar da ezen, nahiz eta araudiak sei hila-beteko gehieneko epea ezarri eskabidearen sarrera-egunaren eta, kasua bada, mendekotasun-prestazioa aitortzeko ebazpenaren artean, hurrengo taulak epe horien bilakaerari buruz ematen dituen datuak ez direla zehatz-mehatz kontzeptu horri buruzkoak. Datu horiek batu egin dute eskabidetik mendekotasun-egoeraren baloraziora arte doan epea eta prestazioaren batez besteko aitorten-denbora. Denbora hori da mendekotasunaren baloraziotik BAPa onartzen den arte, eta oraindik ere eginkizun gelditzen da prestazio-ematearen gauzatzea (une horretan jaulkitzen da prestazio-aitorpeneko ebazpena).

Kontuen Auzitegiak 2014ko maiatzeko bere txostenean eman zituen gomendioei dagokienez:

- 4) 16. orrialdean aipatzen da partzialki aplikatu diren gomendioetako bat; izan ere, onuradunen ahalmen ekonomikoki buruzko araudi-aldaketak jakinarazi beharrezkoak ziren, eta ez da halakorik egin. Departamentuan gomendio hori aintzat hartzen dugu, etorkizuneko aragintza-zereginetarako.
- 5) 17. orrialdean eta konklusioetan adierazten da beharrezkoa dela kontabilitate analitikoko sistema bat ezartzea, modua emanen duena mendekotasunaren alorreko gastua zehazteko eta prezio publiko batzuen finkapena hobetzeko. Sustapen eta Eraldaketa Digitala-

ren Zerbitzuarekin eta Ekonomia eta Aurrekontuak Kudeatzeko Atalarekin aztertuko da nola ekin behar zaion gomendio horri.

- 6) 17. orrialdean, gomendio honi buruz: "Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiarako eta Mendekotasun-arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluak eta autonomia erkidegoek indartu egin behar harko lituzkete Mendekotasun Legearen 18.4 eta 36. artikuluetan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak eta -programak, zaintzaile ez-profesionalei zuzenduak, eraginkorki lagungarriak bada, haiei trebakuntza profesional egokia emanez, mendekotasunaren arretarako zerbitzuetan enplegua sustatzeko." Jakinarazten da gomendio hori ez dela aplikatu, ez baitira indartu mendekotasunaren arretarako zerbitzuetan zaintzaile ez-profesionalei zuzendutako prestakuntza-jarduerak eta -programak.

Familia-arloko zaintzaile ez-profesionalen prestakuntzari dagokionez, Departamentutik ez da inolako jarduketa berezirik egin, eta datozen urteei begira aurreikusten da familia-arloko zaintzaileen aldepena eta prestakuntza transbertsalki lantzea beste jarduketa batzuekiko.

2020an zehar, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan, prestakuntza-ekintza bat egin da Foru Komunitatearen lurralde osoan zehar, mendeko pertsonen oinarrizko zainketako 30 ordukoa, eta horretan 305 pertsonak lortu dute prestakuntza. Bost autoikaskuntza-bideo ere argitaratu dira, ikastaroaren edukia biltzen dutenak, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuen Youtubeko kanalean daudenak. Halaber, Hezkuntza Departamentuarekiko lana abiatua da, behin-behinekoz gaituta dauden pertsonen behar bezalako prestakuntza emate aldera, Autonomiarako eta Mendekotasun-arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren 2017ko urriaren 19ko erabakiari jarraikiz. Prestakuntza hori haiek bizileku duten herriaren eta lanaldia-aren arabera dituzten aukerei egokitua da.

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailea: Inés Francés Román

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-DAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat ezartzen da, jotzen baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla alegazio horiek, eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

